

**ELEIZA EBANJELIZATZAILEAREN  
EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Eleiza Jainkoaren Erreinuaren proiektuaren zerbitzari da**

Zein da eleizaren izatearen eta misinoaren, hau da, egintza ebanjelizatzailearen helburua eta zeregin nagusia? Munduan izatea, munduarentzat, Erreinuaren zerbitzura.

Eleiza *ez da beretzat bizi, Jainkoaren proiektuaren zerbitzari da*. Zerbitzen ez dauan eleiza ez da ezertarako gauza. Proiektua Jainkoaren Erregetza da. Haren salbazino asmo orokorra betetea eta Jesu Kristoren Gorputza eraikitzea. Proiektua zera da: Jainkoaren bat-bateko eta doako munduan sartzea, mundu honek Jainkoaren borondatearen araberako garapena lortu dagian. Gizadi adiskidetu eta anaikorraren erabateko askapenaren proiektua da Jainkoaren Erreinua.

Eleiza *ez da Jainkoaren Erreinua*. “Salbamen-sakramentu unibertsal” (LG 48) modura, Erreinuaren sakramentu da, eta Erreinu horren ernamuin eta hasikin da lurrean. Gizadiarentzat Jainkoak dauan proiektu nagusiaren “ezaugarri” da, hau da, oinarrizko presentzia. Hemen dogu eleizaren misinoaren egiazko zentzuna.

Eleizaren zeregin erabakiorra Jainkoaren Erreinua iragartea da eta, Jainkoaren laguntzaz, gauzatzea, zabalkunderik handie-

naz. Eleiza bitartekotza probidentziala da historian, baina eleizaren mugak ez dabe inguratzen eta mugarrizten Erreinuaren gauzatzea; Erreinu horren hasikin izatea eta Erreinoa iragartea da bere eginkizuna. Izan bere, “salbamen-sakramentu da munduarentzat, baina mundu hori benetan, bere gehiengoan, edozein eleiz-erakundez kanpo salbatzen da Jainkoaren graziaz” (K. Rahner).

Gauzak holan izanik, ebanjelizazinoa ezin egon daiteke eleizaren zerbitzuan, beronen buruaren iraupen bideak egiten edota munduaren aurrean bere burua sendo baieztatzen. Beste zabalgunek batera, beste zeru-muga batera jo behar dau ebanjelizatze ekimenak, Jainkoaren Erreinuaren balioak hazurmamintzera, aurkeztera eta hazi eragitera: Jainkoagazko eta pertsonakazko alkartasuna, anaitasuna, askatasuna, bakea, bizia..., egia bihurtzera.

Eta Erreinuaren zerbitzura dagoan eleiza hau *munduan* dago eta *munduarentzat* bizi da. Mundua (gizadi historikoa) ez da, berez, arrotz edo aurkari erreinuko proiektuaren aurrean, ezta ere plangintza salbatzailearen ezartze-gune huts-hutsean. Espirituaren eraginari jarraitzen deutson neurrian, Erreinuaren egiaztatze-leku izateraino heltzen da. Eleizak, munduaren atal lez, “gizadiaren zerbitzari” modura aldarrikatzen dau bere burua; izan ere, “gizadi osoarekin batera aurrera doa eta munduaren lurreko zori Berbera dau, eta Kristorengan erabarritze eta Jainkoaren familia bilakatua izan behar dauan gizartearen legamina eta arima bezela dago” (GS 40).

Erreinuaren proiektua da, bada, eta ondorioz gizadiaren zoria lehia eta jardun ebanjelizatzaileen ikusgune nagusia. Ez da eleiza bera dan-danaren erdigune (bere zilborrera begira, bere iraupenaz eta hedapenaz kezkatua). Ikuspegi honetan misiolari bihurtzen da eleiza, munduaren bihotzera bialdua sentitzen da, testigantza emotera eta zerbitzera bultzatua. Era honetara Barri Onaren iragarpena (ebanjelizazinoa) zerbitzu eskuzabal eta

maitasun-testigantza garbi egiten jaku. Izan bere, “fedearen iragarpena zerbitzuari lotua dago askaezinezko eran eta berez da karitate ekintza, zeinen bidez testiguak berak daukan onena eskeintzen deusan beste pertsona bati, ez hau konbertitzeko eta kristautzeko, horri deuson maitasunaren testigantza emoteko baino” (A. Fossion).

Hari horri jarraituz, Calcutako Ama Teresaren eredia gogoratu geinke. Indiako behartsuenen eta desjabetuen arduraz bizi izan zan. Euretarik gehienak hinduak ziran eta hindu lez irauten eben, eta Ama Teresak hindu modura hiltzen laguntzen eutsen. Berak hauxe bakarrik eban helburu: azkenengoekazko Jainkoaren maitasunaren ezaugarri izan, azkenengoek benetako maitasunaren bizikizuna izan egien.

Erreinuko Barri Onaren argitan ikusiz, ebanjelizatzea Espiritu Santuak gizadian dauan presentziaren iragarpen eta testigantza ere bada; izan bere, Erreinuaren balioak han-hor-hemen agertzen dira, fede-autormen mugetatik haratago, borondate oneko gizon-emakumeak dagozan edozein lekutan.

Ebanjelizatzea, testuinguru honetan, gure garaikideengan lanean sakonetik diharduan Espiritu Santuaren biziaren eragina “dagoeneko hor” bizirik dagoana aintzat hartu eta baloratzea ere bada. Ala ez ete da ebanjelizazio munduan presente eta eraginkor, ekintzetan burutua eta haragitua dagoan Barri Ona deskubritzea? Ebanjelizazio da, zinez, gizonen historian, eleizetan eta hareetatik kanpo Barri Ona aintzat hartzea eta onartzea.

Gizartean Barri Onaren presentzia eraginkorra aintzat hartu eta autortzea albiste on da gizadiarentzat, eta kristauontzat ere bai. Presentzia eraginkor hori sumatu eta aurkitzean poztu egiten da ebanjelizatzailea, eta munduaren eta gizartearen beraren aldetik ebanjelizatua ere sentitzen da. Predikaria, ebanjelizatzailea, misiolaria baino lehenago eta aurretik Kristo heldu izan dala ikustea oso garrantzitsua da, eta horrek ebanjelizazioa beste era batera ulertzera konbidatzen gaitu.

## **Eleizaren zeregin edo bitartekotzak (“ezaugarri ebanjelizatzaileak”) Erreinuaren zerbitzura: diakonia, koinonia, martyria eta liturgia**

Eleizaren eginkizuna –Erreinuaren zerbitzua—ezin mugatu daiteke borondate oneko pertsonekin lankide izatera gizadia eraldatzeko jardueran. Mundu hobea eraikitzeko guztien erantzukizunean kristauok, beste guztiekin lankidetzan partaide izanaz gain, badogu kristau lez berariazko zeregina: argitan jarri zer zerikusi daben arazo horreek Jesusen Ebanjelioarekin (edo kristau-fedearekin eta honen baloreekin) eta zer ekarpen egin behar daben Jesusen Ebanjelioak eta kristau-fedek arazoon urtenbide eta soluzinorako.

Beste era batera esanda, Eleizak berariazko zeregina dau: gizonen historia argitu eta bultzatzea Erreinuaren helburu eta idealera hurreratu daiten, era jakitun eta benetakoan. Eta horretara bere sakramentu izatea (“Erreinuaren Sakramentu”) eragiten dau bitartekotza edo funtzinoen bitartez. Erreinuaren ideala eta eredia eleiz-ikusgarritasunaren funtsezko lau era nagusitan egiten da ikuskai eta ikuskor munduan:

- *maitasunean eta zerbitzuan gauzatzen* dan Erreinu modura (“**diakonia**”ren ezaugarria);
- *senidetasunean eta alkartasunean bizi* egiten dan Erreinu modura (“**koinonia**”ren ezaugarria);
- Ebanjelioaren *iragarpen-testigantzan aldarrikatzen* dan Erreinu modura (“**martyria**”ren ezaugarria);
- *Obikune jai-giroko eta askatzaileetan ospatzen* dan Erreinu modura (“**liturgia**”ren ezaugarria).

Era honetan, Eleizak behar dau izan munduan zerbitzuaren, senidetasunaren, iragarpen-testigantzaren eta jaiaren berariazko leku, gizakiaren izaeraren oinarritzko lau aldeak aintzat hartuz: ekintza, hartu-emonia, pentsamentua eta ospakizuna. Horra hor, bada, “bitartekotzak”: munduan Erreinuaren “sakramentu” izateko lau era, lau “ezaugarri ebanjelizatzaile”.

**Diakonia.-** Alkarbitzita edentzen dauan norberekeriaren eta azpiratzearen logikari erabateko aldaketa bilatu nahiari erantzuten deutso diakoniaren ezaugarriak. Kristau alkartearen deitua da *maitatzeko eta zerbitzeko* era barri bat iragartera, bere besteenganako eskeintzak sinisgarri egin dagian maitasunaren Jainkoaren eta maitasunaren erreinuaren iragarpena.

Maitatzen eta zerbitzen dauan eleiza, Erreinuaren zerbitzuan benetako ezaugarri ebanjelizatzaile dogu, eta bestetara, ostera, aurkako ezaugarri. “Zerbitzen ez dauan eleiza, ez da ezertarako gauza”.

**Koinonia.-** Ezaugarri honek alde eta aldi guztietako gizon-emakumeen barruan dagoan senidetasun- eta bake-gurariari erantzuten deutso. Alkarrekin bizi izateko eta alkarbanatzeko modu barria iragarri behar dau. Senide alkartu eta adiskidetu modura bizi gaithekezala adierazo behar dau eleizak, pertsona guztien erabateko onarpenaz eta euren askatasun eta berezitasunagazko begirunerik sakonenaz. Banaketez, bereizketez eta norberekeriez urratua eta zarratatua dagoan munduan, kristauok deituak gagoz senidetasunaren eta batasunaren erreinuaren utopia iragartera, askatasun-, ulermen- eta maitasuneko guneak eta tarteak eskeiniz eta emonez. “Aita, [...], egizu honek ere bat izan daitezala, munduak sinistu dagian”.

**Martyria.-** Martyriaren edo zeregin profetikoaren ezaugarriak iragarpen askatzaile lez eta bizitzaren eta historiaren giltza modura distiratu behar dau munduan. Zentzun-eskariaren eta gaitzaren esperientziaren aurrean, kristauok itxaropen eroale izan behar dogu, “absurduaren arerio, zentzunaren profeta”, eta hori Nazaretoko Jesusen iragarpenaren bitartez; izan ere, Jesusek dau Aitaren maitasuna agertzen eta Erreinuaren etorrera inauguratzen. “Aldarrikatu Erreina iragarpenaz eta testigantzaz”.

**Liturgia.-** Liturgiaren ezaugarriak, zentzun zabalean, kristau-bizitzaren ohikune, sinbolo eta ospakizunak hartzen ditu,

salbazinoaren iragarpen eta doe diranak. Bizitza ospatzearen eskariari erantzuten deuto zeinu honek eta salbazinoaren doa ohikunean jaso eta adierazteari. Kristau-alkartea deitua dago bizitzan eta historian gune barriak sortzera, euren opakutasunetik askatuta, Erreinuaren proiektuaren eta gauzatzearen gune modura ospatuak eta goratuak izan daitezcan.

Fedearen bizikizuna beteten dabean Eukaristian, sakramentuetan, jaietan eta debozinoetan, kristauok iragarri eta ospatu egin behar dogu, poztasunez eta esker onez, Jesu Kristogan azaldu dan bizi barriaren osotasun askatzailea. “Ospatu erreinua pozez eta esker onez”.

“Ezaugarri ebanjelizatzaile” honeek adierazten dabe munduan eleizak dauan eginkizuna: guztiei eskeini, erreinuaren proiektuaren ezaugarri eta hasikin danez, lau doe nagusiok: danak maitatzeko era barria, anaiarteko alkarbizitza modu barria, biziz eta esperantzaz beteriko mezua eta testigantza, oso-osoko bizitzaren adierazpen argi diran ohikuneak. Lau ezaugarri bitartez beteten dau eleizak bere zeregin ebanjelizatzailea eta emoten deuto Jainkoaren Erreinuaren gauzateari bere ekarpen berezi eta ordezkazina.

Bitartekotza honeek ezin banandu daitekez euren artean, honako errealitate loturirik gabeak eta independienteak izan do balira lez, alkarren menpeko diralako, eta lauen presentzia harmonikoa behar dau eleizaren artzain-ekintzak benetako kristautasunaren erizpidea bereganatu ahal izateko.

Eta beharrezko egiten da ezaugarriok ondo ulertzeko xehe-tasun pare bat:

Bitartekotza honeek ezin banandu daitekez euren artean, honako errealitate loturirik gabeak eta independienteak izango balira lez.

Ezaugarri ebanjelizatzaileon artean ezarri ete daiteke hierarkia bat, garrantzi mailaren arabera sailkatuz? Ba ete dago ga-

rrantziaren araberako lehentasun-hurrenkera bat jartzerik? Erizpide nagusi lez Jainkoaren Erreinuaren azken helburua hartzen badogu, *diakoniak eta koinoniak* dabe lehentasuna, zuzen-zuzenean Erreinuaren funtsezko baloreetara begira dagozalako, maitasunera eta alkartasunera. Ezaugarriok barruan dabe dagoeneko era gailenean adierazten daben errealitatea (“res sacramenti”); *martiria eta liturgia*, ostera, zaugarriago eta faltsutugarriago gertatzen dira erretolikan, hitz hutskerian eta ritualismoan jausi daitekezalako. Hauxe da esan gura dodana: Eleizak munduan dauan bere eginkizun ebanjelizatzailea gehiago beteten dauala *egin egiten dauanagaitik* (diakonia) eta *izatez danagaitik* (koinonia), *adierazten* (martyria) eta *ospatzen dauanagaitik* (liturgia) baino.

#### ELEIZAREN ZEREGINA:

**EGIN:** MAITASUN ZERBITZUA

**IZAN:** BATASUN ALKARTEA

**ESAN:** IRAGARPEN TESTIGANTZA

**OSPATU:** BIZIAREN OSOTASUN ASKATZAILEA.

Eleiza ez da inoiz erabat  
Jainkoaren Erreinua  
Baina hasikin lez bizi behar dau  
Eskuzabal zerbitzua  
Hazurmamintzen dauan neurrian  
Salbazino proiektua  
Eraldatzen dau garapen jantziz  
Gizadia eta mundua  
Jaungoikoaren asmo betea  
Izan daiten gauzatua  
Izan daiten gauzatua.

*Lontzo Zugazaga*  
Getxon, 2010 – 06 – 22an